

Hernaniko Udaleko Gobernu batzarrak 2026ko otsailaren 26an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

HERNANIKO UDALAREN ETA GOIZ EGUZKI ERRETIRATUEN ELKARTEAREN ARTEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENAREN ALDAKETAK

2023ko martxoaren 3an erabaki zen Goiz Eguzki Erretiratuen Elkarteari dirulaguntza emateko hitzarmena sinatzea (dekr 2023 /0521).

Hitzarmena horretan erabaki zen Hernaniko Goiz Eguzki Erretiratuen Elkarteari 15.000euro ordaintzea dirulaguntzaren moduan, pertsona helduentzat osasun eta ongizate jarduerak burutzeko. Hitzarmen honen iraupena 4 urtekoa da. (2023-2024-2025 eta 2026) eta 2026ko abenduaren 31n amaituko da.

2026ko aurrekontuetan, Udalak hitzarmen horri egindako ekarpena 3000 euro handitu du, 15.000 eurotik 18.000 eurora pasatuz.

Aldaketa hori 2026an gauzatu da, eta, beraz, beharrezkoa da egungo hitzarmena eguneratzea.

Era berean, Goiz Eguzkiren kudeaketa eta erabilera errazteko, beharrezkotzat jotzen dut hitzarmenean, "hitzarmenaren xedea" atalean, honako puntu hauek sartzea:

1. Goiz Eguzkin dagoen materialaren inbentarioa sartzea. Inbentario horretan, udalaren jabetzako materiala eta elkartearen jabetzako materiala zehaztuko dira. Horrela, Udala arduratuko da udal titulartasuneko materiala mantentzeaz eta birjartzeaz, eta Goiz Eguzki Jubilatuen Elkarte arduratuko da bere jabetzako materiala mantentzeaz eta birjartzeaz.

Eraikinean egin nahi den edozein obra edo banaketa-aldaketa egin aurretik Udalaren baimena beharko dela jartzea.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2026ko otsailaren 19an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Hernaniko **Tokiko Gobernu batzarrak AHO BATEZ erabaki du**

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa aldatzea. 18.000 euro jartzea. (2026. urterako)
2. Hitzarmenaren "hitzarmenaren xedea" atalean, honako puntu hauek sartzea:
 - *"Hitzarmen honek Goiz Eguzkin dagoen materialaren mantenua eta birjartzea definitzen du.
Udala arduratuko da Udalaren titulartasuneko materiala mantentzeaz eta birjartzeaz.
Goiz Eguzki Erretiratuen Elkarte arduratuko da bere jabetzako materiala mantentzeaz eta birjartzeaz."*
 - *Eraikinean edozein obra edo banaketa-aldaketa egiteko Udalaren baimena beharko dela dioen atala sartzea.*

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorriz

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-Idazkaria
Hernanin 2026ko otsailaren 26an

Jakinarazpen hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna,
QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus

